

## 2010EKO ERAKUSKETAREN EGUTEGIA

### IRUÑEA

Irailaren 8tik 19ra.  
Kondestablearen Jauregia

### AGOITZ

Irailaren 20tik 30era.  
Kultur Etxea

### CASTEJÓN

Urriaren 15etik azaroaren 1era.  
Kultur Etxea

### VIANA

Azaroaren 5etik 14ra.  
Kultur Etxea

## 2011KO ERAKUSKETAREN EGUTEGIA

### TUTERA

### ALTSASU

### OTSAGABIA

### ELIZONDO

### LIZARRA

### AZKOIEN

### VIANA

### TAFALLA

Herri bakoitzean izanen den erakusketaren data zehatzak Gizarte Afera, Familia, Gazteria eta Kirol Departamentuaren webgunean agertuko dira (Garapenaren aldeko Lankidetzako Zerbitzua).

[www.cooperacion.navarra.es](http://www.cooperacion.navarra.es)

# RUANDA

## NAFARROAKO LANKIDETZAREN JATORRIA

## ERAKUSKETA

2012 ZUREKIN  
BAGOAZ AURRERA


 Nafarroako  
Gobernua



Gizarte Afera, Familia, Gazteria eta Kirol Departamentuaren bidez, Nafarroako Gobernuak *Ruanda, Nafarroako lankidetzaren jatorria* erakusketa antolatu du. Horren helburua da, alde batetik, herritarrei laguntza jaso duten proiektuen eta horien emaitzen berri ematea, sentibera bihur daitezten, eta, bestetik, planetako herrialde pobreenen bizi baldintzak hobetzeko bizitza eskaintzen duten pertsonak omentzea.

Nafarroako Gobernuak 1991n abiatu zuen formalki Garapenerako Nazioarteko Lankidetzeta Programa, eta gure gizartearen ezaugarri nagusietako baten adierazpena da: pertsona ahulenei laguntzeko egin duen lana. Azken 20 urteotan, Nafarroako Gobernuak 220 milioi euro baino gehiago bideratu ditu, eta 91 herrialdetan egon da: Ertamerikan, Hegoamerikan eta Afrikan gehienbat. Ruanda izan zen gure laguntza jaso zuen lehenbiziko herrialdea, lankidetzeta programa bera ere sortu baino lehen.

Enrique Pimoulier argazkilari nafarraren argazkiei esker, kontzientzia hartzeaz gainera, sentibera bihurtzeko aukera izanen dugu, Ruandako errealitatea nolakoa den ikusita. Era berean, informazioa jasoko dugu proiektuek zenbaterainoko eragina izan duten eta Ruandako herritarrak gauzatzen ari diren garapen prozesuari nola laguntzen ari gaitzaizkion jakiteko.



## Nafarroako lankidetzeta

Nafarroako Gobernuak finantzaturako lankidetzeta proiektuek lagundu behar dute pobrezia aurkako borrokan, garapena bera eta onura jasotzen duen biztanleriaren gaitasunak oinarri hartuta. Gainera, hiru ikuspegi izan behar dituzte jarduketek: genero berdintasuna, ingurumenaren iraunkortasuna eta giza eskubideak errespetatzea.

Nafarroako lankidetzatik laguntza gehien jaso duten sektoreak oinarritzko premiekin lortuta daude, besteak beste: osasuna, hezkuntza, urez hornitzea, saneamendu azpiegiturak eta garapen integrala.

Biztanleko eta urteko, Foru Komunitateak ahalegin handia egin du aurrekontuetan, Garapenaren aldeko Laguntza Ofizialari dagokionez (GLO). Hala-ber, pertsona bakoitzeko gehien ematen duen erkidegoa da Nafarroa, eta ahalegin hori agertzen da lankidetzarako erabiltzen den BPGd-ren portzentajearen.

## Ruandarekin gauzatutako lankidetzeta

80ko hamarraldian hasi zen Ruandarekin gauzatutako lankidetzeta, eta Nafarroako Gobernuak 2.200.000 euro baino gehiago bideratu ditu herrialde horretara. Nembako Ospitalea izan zen fondoak jaso zituen lehenbiziko proiektua, eta gure lankidetzaren ikurretako bat bihurtu da proiektua.

# RUANDA